

2021eko martxoaren 29ko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: DARGUY, DUHALDE, ECHEVERTZ, ETCHEVERRY, OXARANGO, PEREZ, SABALOUÉ andereak, eta BARBIER, BARNECHE, BISCAY, GASTAMBIDE, HERNANDEZ, MONGABURE, OTEIZA, PARACHOU jaunak.

Ezin etorria jakinarazia zutenak : Kattalin DUHALDE, Koxe BARBIER

Bilkurako idazkaria: SABALOUÉ Virginie

1. 2020ko URTEALDIAREN EMAITZEN ESLEIPENA (2021eko otsailaren 8ko bilkuran bozkatua)

2020ko kontu administratiboak erakutsi du:

Herriko Etxearen konturako:

- 344 655,84 €-ko funtzionamendu-soberakina
- 280 698,70 €-ko inbestimendu-finantzaketarako beharra (inbestimendu-defizita + betetzekoak diren gaineratikoak)
- Beraz, funtzionamendu-emaizta 63 957,14 €-koa da, eta 2021eko aurrekontura gibelatu behar da.

Hilerrietarako:

- 1 773,47 €-ko funtzionamendu-soberakina, 2021eko aurrekontura gibelatzekoa.

Aho batez onartua.

2. 2021eko ZERGEN BOZKATZEA

- Bizitegi zerga: ez da bozkarik izan, Estatuaren zuzkidurak ukanen ditugu, bizitegi zergaren erreformaren ondotik.

2018az geroztik zerga hori apaltzen ari da Frantziako herritarren % 80rentzat; **horiek ez dute gehiago ordaintzen.**

Gelditzen diren % 20 familientzat **bizitegi zerga** apalduz joanen da 2023a arte, eta ordutik goiti ez du **gehiago** familia bakar batek **bizitegi zerga ordainduko bere bizitegi nagusirako.**

Bizitegi nagusien bizitegi zergaren galtzearen ordainetan, herriek bi zerga baliabide mota ukanen dituzte: herriko lurraldeari doakion Departamenduko Etxe Eraikien gaineko Lur Zergen parte (EELZ), eta Estatuak bereziki EELZz gain dituen zerga gehigarrien gainean bildu kudeaketa gastuen parte.

Beraz, herriak ez du behar den palankarik aurrekontuaren orekatzeko bizitegi zerga galdu ondoan, eta gainera, 2015az geroztik, Estatuaren zuzkidurak erregulariki apaltzen ari dira.

Nôtre legea aplikatu denaz geroztik eta frantses gobernamentuaren erabakiak aplikatuz geroz, tokiko zerga sistema azpiz gora ezarri da, eta zail gertatzen da dirua sarraraztea.

Euskal Elkargoak pagatzen dituen ordainsarien zenbatekoa ez da aldatu 2019az geroztik.

Beste bi zergen tasa herriek dute erabakitzen.

Gure aurrekontuari indar eman behar diogu herriko karga arrunten ordaintzeko eta inbestimendu beharrei ihardesteko. Agintaldi honetan bi emendio egin genitzake, bat 2021ean, eta bestea 2023an, besterik ez.

- Lur eraikien zerga: % 9,22tik % 9,53-ra, 2020ko % 13,47-ko departamendu zergari gehitzekoa = Orotara % 23
 - Lur ez-eraikien zerga: % 28,61etik % 29ra
- Aihertar **jabe** zergapekoek emendioa ukanen dute, beraz, 4 €-tik 6 €-ra, herriko zergari dagokionaz. Aho batez onartua.

3. AURREKONTUEN BOZKATZEA

AURREKONTU NAGUSIA

- Funtzionamendua: **729 932 €**

GASTUAK		IRABAZIAK	
Kargu nagusiak	125 000,00 €	2019ko soberakina, gibelatua	63 957,14 €
Langile karguak	159 400,00 €	Zerbitzuen produktuak	6 200,00 €
Usaiak kanpoko karguak	500,00 €	Karguen arintzea	47 300,00 €
Finantza-karguak	8 000,00 €	Orotariko zergak	400 640,00 €
Beste kudeaketa karguak	146 300,00 €	Beste kudeaketa produktuak	38 000,00 €
Ordena operazioak	9 523,00 €	Emaitzak, dirulaguntzak	173 835,00 €
Transferentzia inbertsio sailera	281 209,14 €		
OROTARA	729 932,14 €	OROTARA	729 932,14 €

- Inbestimendu aurrekontua: **463 704 €** betetzekoak diren gaineratikoak gabe

Inbestimenduaren zenbatekoa	2021eko inbest.
Elbarrituentzat helgarritasuna Herriko Etxean, eta zaharberritzea	316 204,14 €
Herriko errepideak / Sareak	80 000,00 €
Eskola publikoko obrak	5 000,00 €
Suteen kontrako zaintza	2 500,00 €
Harrobiaren antolaketa	5 000,00 €
Beltzagitearen zaharberritzea - Ikerketak	10 000,00 €
Elizako ezquila dorrearen zaharberritzea	20 000,00 €
Orotariko materialaren erostea	25 000,00 €
INBESTIMENDUAK OROTARA	463 704,14 €

HILERRIAK

11 Kargu orokorrak	4 073,47 €	013 Zerbitzu produktuak	500,00 €
		74 Aurrekontu nagusiko produktua	2 000,00 €
		002 Funtzionamendu emaitza gibelatua	1 773,47 €
OROTARA	4 073,47 €		4 073,47 €

Bi aurrekontuak aho batez onartu dira.

4. AIHERRA ETA BESKOITZEREN ARTEKO ERREPIDEEN OBRETARAKO ESKAERA MERKATURAKO HITZARMENAREN BOZKATZEA

2017an Beskoitzeko herriarekin egin akordioaren ondotik, egoki litzateke, ekonomia-eskala baten ukaiteko gisan, bi herriek elkarrekin hauta dezaten hornitzaile bat errepideetako obra horien egiteko. Eskaera Publikoaren Kodeko L.2113-6 - L.2113-8 artikuluek aipatzen duten "eskaera elkargo" prozedura egin behar dugu; horren bidez kontsulta egiten ahalko dugu eta hornitzailea hautatu baldintza hoberenetan.

Horretarako, prozedura horren kariatara, eskaera elkargoa osatzen duen hitzarmena plantan ezarri behar da; honek funtzionamendu moldeak zehazten ditu bereziki.

Beskoitzeko auzapezarekin harremanetan sartu ondoan, hitzarmen proiektu bat prestatu dugu puntu hauekin:

- Eskaera elkargoaren koordinatzailea Beskoitzeko herria litzateke
- Kide bakoitzak eskaera merkaturako hitzarmen oinarri-emaile indibiduala izenpetuko luke, eta bakoitzak bere merkatu publikoa egingen luke.
- Horrelako eskaera elkargo baterako behar da Eskaintza-deialdi Batzorde bat izendatu. Beraz, herriko Eskaintza-deialdi Batzordeko kideen artean kide tituludun bat hautatu beharko da eta ordezkari kide bat herriaren ordezkari. Horrelako Eskaintza-deialdi Batzordearen lehendakaria nahitaez koordinatzailearen ordezkari izanen da.
- Virginie Sabalouek jaun auzapeza lagunduko du batzorde berezi horretan.
Aho batez onartua.

5. GOZATEGIA JABEKIDEGOAREN BOZKATZEA

Hastapenean Gozategia eraikuntza anizkoitza 4 zatitan zatitua zen, eta 1. zatia merkataritza egoitzak egiteko zen (gibealeko beheko parte).

Gelak merkataritza bat baino gehiagori saltzeko gisan eta zatiek parte komunak dituztela kontuan harturik, erabaki da jabekidego baten sortzea 1. zatian, parte komunaren kudeatzeko gisan.

Oroitarazi da lehen parte Tec Services sozietateari saldu zaiola, eta beste bi parte ere erosi nahi litzukeela, eta Nec Hygiènek ere gelditzen diren bi parteak nahi litzukeela.

Auzapezak biltzarrari aurkeztu dio jabekidegoaren zatiketa eta Donibane Garazin geometria-aditu den Delpech jaunak finkatu jabekidego araudia.

Herriko Kontseiluari gai horri buruz bozkatzeko galdatu dio.

Aho batez onartua.

Gainerako gaiak:

Hizkuntza Gutituen Europako Gutunaren onartzea Euskal Herrian Itsasuko herriak du bultzatu eta proposatzen du lan horren federatzea eta gutienez 20 herriren baimena lortzea. Lan hori 2021eko uda gabe egitekoa da. Euskara Batzordea (eta boluntario diren kontseilari guziak) da lan horretaz arduratuko eta egitura bat proposatuko dio Herriko Kontseiluari.

Herriko Artxiboen Batzordearen lehenbiziko lanak... Lehenbiziko bilkura iragan da beharren, metodoaren eta helburuen finkatzeko. Agertu da lan horretarako beharko dela kanpoko balioztatze handiagoa. Bide zenbait ikertu dira, eta Herriko Etxetik kanpoko batzorde gisa ariko den batzordea lanean hasiko da.

Beltzagitzearen zaharberritzeaz puntua (Herriko Etxetik kanpoko batzordea, suntsitze obrak, Euskal Elkargoko ingeniarietzarekin topaketa). Dosierra poliki doa, baina aitzina doa. Segurtasun obrak primaderan hasiko dira, LTEPren gerizan. Egingarritasun dosierra proposatuko da 6 hilabete barne, alde edo kontra agertu gaitezen.

Aihertar zenbaitek eraikitzeak egokituak diren lursailak galdegin dituzte. Bi lur badira herritarrek eraikitzeak atxikiak. Prestaketa lana batzordean egingen da lur horiek eraikigarri egiteko baldintzak eta epeak finkatzeko. Interesatuak direnek beren gogoaren berri eman dezatela.

Kutxa Biraz argibideak: ametsen kutzaren munduaren itzulua – geldialdia Aiherran 2021eko apirilaren 11n, igandean, 16:00etan. Martxoaren 20tik maiatzaren 30era kutxak diaspora eta Euskal Herria zeharkatuko ditu Argentinatik Gipuzkoaraino.

Bilkura 22:00etan bururatu da

Auzapeza, Arño Gastambide